

IX. ERANSKINA

INTERES-GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA

(HFP/1030/2021 AGINDUA)

Azpiproiektua: C21.I01.P01 - Haur Hezkuntzako lehen ziklorako promozioa eta plaza berriak.

Tresna juridikoa: AGINDUA, azaroaren 26koa, Hezkuntzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dirulaguntzak emateko dena, ikastetxe publikoetan Haur Hezkuntzako lehen zikloko plaza berrien azpiegitura-gastuak finantzatzeko, Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (Next Generation EU).

Espediente-zenbakia: AAAA_ORD_AY_4179/24.

Kargua:
Izen-abizenak:
IFZ:

Goian aipatutako prozeduran inpartzialtasuna bermatze aldera, behean sinatzen duenak, kudeaketa- edo betearazpen-prozesuan parte hartzen duen aldetik, honako hau adierazten du:

Lehenengoa. Adierazten du baduela honako hauen berri:

1.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko (EB, Euratom) 2018/1046 Erregelamenduak (EBren finantza-erregelamendua) 61.3 artikuluan («Interes-gatazka») ezartzen du interes-gatazka dagoela «funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kidesun politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».

2.– Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») helburu hau du: lehiaren edozein distortsio saihestea, prozeduraren gardentasuna bermatzea eta hautagai eta lizitatuak guztiei tratu berdintasuna ziurtatzea.

3.– Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua («Abstenitzea») ezartzen du prozeduran esku hartetik abstenituko direla «administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeraren batean daudenean», zehazki, egoera hauetako batean:

a. Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo besteren batean, baldin eta azken horren ebazpenak lehenari eragin badiezaioke; sozietate edo entitate interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

b. Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.

c. Aurreko letran aipatutako pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

d. Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.

e. Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan.

Bigarrena. Adierazten du ezen, deklarazio hau sinatzeko unean, eta bere esku dagoen informazioa kontuan hartuta, ez dagoela EBren Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan interes-gatazkatzat sailkatzen diren egoeretako ezeinetan, eta ez dagoela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan ezartzen diren eta prozeduran eragina izan dezaketen abstentzio-kausetako ezeinen mende.

Hirugarrena. Hau adierazten du:

1.– Konpromisoa hartzen du interes-gatazken egoera oro edo egoera hori eragin duen edo dezakeen abstentzio-kausa oro kontratazio-organoari/hautaketa-organoari luzapenik gabe jakinarazteko.

2.– Konfidentziasunez tratatuko ditu prozedura horien esparruan garatzen diren gaiak eta dokumentazioa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2007 Legearen 133. artikuluan ezarritako obligazioen esparruan.

Laugarrena. Adierazten du jakitun dela aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen ondorio diziplinarioei, administratiboei eta judizialei aurre egin beharko diela, baldin eta frogatzen bada Interes-gatazkarik ezaren adierazpena faltsua dela.

Data:.....

Izen osoa:.....

NANA:.....

Sinadura: